

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

18/2019 Foru Agindua, irailaren 27koa. Karrerako funtzionario izendatzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio orokorreko eskala, administrazio azpieskala, 30121 deialdia, administraria

Maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Aginduaren bidez, onetsi egin ziren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zerbitzupuan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Hautapropa horiek Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 29ko 814/2016 Erabakiak aurreikusi zituen, zeinaren bidez onetsibaitzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016rako enplegu publikoaren eskaintza.

Foru Agindu horren 11. oinarrian araututakoaren arabera, 9. eta 10. oinarrietan ezarritako izapide guztiak bete ondoren, epaimahai kalifikatzaileak hautatuen behin betiko zerrenda egingo du, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enpleguaren atarian www.araba.eus/ifbs/porta-lempleo/ argitaratuko du, eta Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari aurkeztuko dio, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario izateko izendapen proposamen gisa.

Epaimahai kalifikatzaileak 2019ko irailaren 26an, izendapen proposamen moduan, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda aurkeztu du, deialdi honetarako: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko enplegu publikoaren eskaintza, administrazio orokorreko eskala, administrazio azpieskala, 30121 deialdia, administraria.

Oinarri orokorren hamaikagarren oinarrian xedatutakoari jarraituz, hautatutako pertsonen behin betiko zerrendaren bidez izendapen proposamena jaso ondoren, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuari dagokio, foru agindu bidez, behin betiko zerrenda horretan agertzen direnak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario izendatzea.

Oinarri orokorretan araututakoa betetzeko, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egituraren eta funtzionamenduaren arautegia onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua funtzio publikoaren arloan ematen dizkidan eskumenak baliatuz, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren lehendakaria naizen aldetik, honakoa.

Xedatzen dut

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016ko enplegu publikoaren eskaintzaren aipatutako deialdiaren ondorioz (administrazio orokorreko eskala, administrazio azpieskala, administraria), Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen karrerako funtzionario izendatzea pertsona hauek, zehazten den lanpostuari atxikita:

BARNE SUSTAPEMEKO SISTEMA –TXANDA OROKORRA

NAN	LANPOSTUA
16299060 H	54.037 ADMINISTRARIA
13091301 T	54.004 ADMINISTRARIA

SISTEMA IREKIA – TXANDA OROKORRA

NAN	LANPOSTUA
16292703 D	54.033 ADMINISTRARIA
44676009 G	41.002 ZUZENDARITZAKO IDAZKARIA
72721397 C	54.028 ADMINISTRARIA
14267122 S	54.046 ADMINISTRARIA
16303080 J	54.042 ADMINISTRARIA
18592331 M	54.041 ADMINISTRARIA
72732365 V	54.001 ADMINISTRARIA
72739326 D	54.008 ADMINISTRARIA
45815853 Z	51.003 ZUZENDARIORDETZA TEKNIKOKO IDAZKARIA
16288465 A	54.025 ADMINISTRARIA
44673578 B	54.009 ADMINISTRARIA
18602221 M	54.010 ADMINISTRARIA
72743010 J	54.027 ADMINISTRARIA
45669333 G	54.012 ADMINISTRARIA
72734945 K	54.016 ADMINISTRARIA
72743330 B	54.026 ADMINISTRARIA
16263009 P	54.034 ADMINISTRARIA

SISTEMA IREKIA – DESGAITASUN OROKORRA DUTENENTZAT GORDETAKO KUPOA

NAN	LANPOSTUA
44681730 K	54.036 ADMINISTRARIA
44670775 Z	54.035 ADMINISTRARIA

Bigarrena. Izendatutakoek hilabete edukiko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzeko, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, epe hori hamabost egunez luza daiteke, izangaiak hala eskatu, eta eskaera hori egoki arrazoitzen badu. Ezarritako epean jabetzahartzen ez dutenek, eta ezinbestezko kasuetan salbu, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri den funtzionarioa esleitutako lanpostuari atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeorrekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 27a

Gizarte Politiken Saileko diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA